

Goierri tarra

362. zenbakia 2009ko ekainak 5





zure ikusmena zainduz
zure estetikaren oinarritzko osagaia

Ε Μ Ψ Ε

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA Salvatore Ferragamo EXTÉ ROMEO GIGLI



reklone

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)


A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN



- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

R.P.S.:32/04



GoierriHartxo

Goierriko haurren aldizkaria
17. zenbakia zure esku



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Inprimaketa:

Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Inazio Usarralde.

5. Ingurugiro txokoa: Charles Darwin eta Espezien jatorria

6. Euskara txukuntzen: Denetik (XX)

7. Aholkua: Aldaketa txikiak, aldaketa handiak.

8. Erreportajea: Beasaingo La Salle ikastetxeak 100 urte.

15. Kirola: Rafael Peguero 1.200 kilometroko zikloturista.

18. Elkarrizketa: Montse Auzmendi, Eusko Legebiltzarreko Legelari Nagusia.

22. Garai batean...: Seroren zeregina Gaintzan.

24. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Inazio Usarralde

Geltoki bila

Bolada honetan sentibera samar nabiltu urteak zein azkar doazkigun jakin betuta. Inguruan jende asko daukat maiatzetan urteak betetzen dituenak, tartean ni neu ere maiatzekoa naiz, bai, eta baliteke horrek guztiak eragina edukitzea. Baina, nolanahi ere, burutik kendu ezinik ibili ohi naiz maiz honako galderak: gurea, benetan, bizitzea al da, edo egunak ahalik eta azkarren gainera kentzea da, autopistan kilometroak gainditzen ditugun modu beretsuan?

Burutazio hauekin nabilela Karmele Jaio idazlearen eskutik bizitzeari buruzko burutazio hau iritsi zait: *bizitzan arrakasta izatea ez da diru asko edukitzea, ez da lagun asko edukitzea. Benetako arrakasta bizi dugun momentua benetan bizitzea da, kontzienteki. Eta horrekin gozatu abal izatea*. Zer pentsatua ematen du, ezta?

Hari horri tiraka, uste dut, norgehiagoka antzu, krudel eta kezkarri batean bizi garela gero eta gehiago. Gehiegi bizi gara ondokoari, aldamenekoari begira; ez nola bizi den kezkatzeko, guk baino zenbat gehiago duen ikusteko baizik. Eta gorpil zoro batean murgilduta gaude: denok eduki behar dugu denetik etxe bakoitzean. Benetan behar dugun edo ez geure buruari galdetu gabe. Gauzak trukutzen ez dugu ikasi. Nago gaur egun kontua dela gauzak edukitzea, eta aldamenekoak baino gehiago baldin bada hobe.

Ez naiz hasiko ni orain auzoan telebista bakarra behar denik esaka, geure haurtzaroan bezala, ez. Baina, hortik, lau pertsona bizi diren etxe batean bost telebista izatera iritsi bagara zer edo zer behar den moduan ez doala ematen dit niri aditzera.

Gauza gehienetan bezala neurrian egongo da gakoa. Baina, hain da nabarmena urte askoan, asko eta asko, neurritz gainera bizi (nolabait esateko) izan direla/garela. Izan ere, horrelako jendea oso gertu dugu. Eta ja! orain krisia etorri denean ezin eutsi jarri diogun mailari!

Neurritz gora bizi izan direla esan dut baina, Karmele Jaioaren gogoetari berriro heltzen badiogu, zenbateraino biziko ote ziren, ba, gorpil zoro horren barnean erori eta eurek menderatzen ez zuten neurri-raino iritsi direnak? Horiek momentua, kontzienteki esaten dena, zenbat aldiz biziko zuten? Beti ondokoari begira, hura baino gehiago izateko hurrena zer erosi-ko, zer etxeratuko bizi dena benetan bizi dela esan al daiteke, ba?

Ez dugu ulertzen *nor gehiago* izatea baino askoz ere erakargarriagoa dela denok *nor* izatea, eta nor izate horretatik bizimodua eraiki elkarrekin, elkarri zor zaion errespetuaz.

Berrogei urteko talaiaitik begira jarrita ondorio hau dakusat argi eta garbi: nola aldatzen diren gauzak (egoerak) kamara-da!

Ohartuta nago, esaterako, duela hogeitau urte, gazte nerabe batzuk besterik ez ginenen, biziki amesten genuela mundua erroitik iraultzeko gai izango ginela. Denborarekin, orde, ohartu gara mundu osoa aldatzen ahalegindu beharrean, geure eskuetan dagoenari erreparatzea askoz ere eraginkorragoa litzaigukeela. Hau da, benetako iraultza erdiestekotan, etxetik, auzotik, norberaren herritik hasi behar dugula. Beste era batera esanda, geure pentsamendua, tarteka utopikoa izateraino heldu baliteke ere (eta hori ona delakoan nago!), eguneroko praktikarekin uztartu beharra daukagu. Eta horretan hasita, hain juxtu, agerian geratuko zaizkigu geure kontraesanak. Baina, nago, aldi berean, kontraesan horiek direla bizitzan aurrera egiteko irakasgai ezin hobeak.

Azken batean, daramagun bizimodu zoro honetako abiadura handiko tren horretatik jaisteko, non da hurrengo geltokia? Ez ahal da berandu izango!

Geure pentsamendua, tarteka utopikoa izateraino heldu baliteke ere (eta hori ona delakoan nago!), eguneroko praktikarekin uztartu beharra daukagu.



kutxa

Charles Darwin eta Espezien jatorria

Lurrean bizi diren izaki guztietara konektatuta gaude. Bizi-ehunaren zati gara uste dugun baino era sakonagoan. Ez bakarrik arnasten dugun oxigenoa edo elikatzen gaituen jakia da bere atala, bizitzaren sarea, gure jatorria ere bera da. Denok, zuhaitz erraldoietatik hasi eta bakterio nimiñoetaraino (gizakiok barne), arbaso bera konpartitzen dugu. Nolabait, ezagutzen dugun izaki guztiak eta bakoitza gure senidea da.

Idea hau lehenengo aldiz antzeman zuen pertsona, neurri batean behintzat, Charles Darwin izan zen. Orain dela 150 urte, bizitza ulertzeko era aldatuko zuen obra iraultzailea argitaratu zuen, 'Espezien Jatorria'. Aurten ere Darwin jaio zela 200 urte ospatzen dira.

Liburua ez zen oharkabean pasa. Edukia garai hartako pentsamoldeetarako guztiz probokatzaila zen (Jainkoia lurra eta izaki guztiak sortu zituen gaur ezagutzen ditugun bezala alegia), Baina ez zen ero edo burutik egindako baten lana, itzal handiko biologo batena baizik. Zehaztasun zientifikoarekin idatzirik zegoen eta ukaezinak ziren ekarpen edo behaketa ugari gehitzen zituen. Han




Ezkerrean: Darwin 31 urtekin. Eskuinean: Darwinek idatzitako orria. Bertan esaten du "Bizitzaren zubaitzan pentsatzen ari naiz..."

agertzen ziren ideien aurka zeudenak ere konyutan hartzea behartzen zituen. Gaian aditua zen Darwin, eta liburua onegia alde batera uzteko.

Gainera ez da espezialistentzako irakurketa. Edozein, biologian formakuntzarik ez izan arren, bere obra ulertu eta gozatzeko gai zen eta da; Naturaren mirarien aurrean begiak irekitzen dizkigu. Gaur egun, oraindik, askok zientzia dibulgazioko obra onenetzat dute.

Horregatik, argitaratu ondoren, 'Espezien Jato-



ria'-n azaltzen den ideia geldiezina izan zen: Espeziek hautaketa naturalaren ondorioz eboluzionatzen dira. Ideia horren ordua iritsi zen.

Lur borobilaren ideia orain dela mende batzuk harrigarria zen bezala, gaur egun ere izaki guztion senidetazuna ez dago guztiz barneratuta. Eboluzioaren teoriak zer esan handia ematen badu ere, ez da guztiz ulertzen. 'Espezien Jatorria' irakurtzea hasiera ona izan liteke Zientzietako ideia garrantzitsuenatarikoa ulertzen hasteko, Eboluzioaren Teoria. Irakurri ondoren, Thomas Huxleyk, eboluzionismoarekiko eszeptikoa, esandakoa errepikatu-ko duenik egongo da: Zein ergela izan nintzen honetan ez pentsatu izanean!

Patxi Razkin eta Koro Irazustabarrena

Denok, zuhaitz erraldoietatik basi eta bakterio nimiñoetaraino (gizakiok barne), arbaso bera konpartitzen dugu.

JAKIN BEHARREKOAK

Salmonella ordubetea hautemateko gailua diseinatu dute IK4 Teknologia Aliantzak. Salmonella spp eta beste bakterio batzuk ordubetea hautemateko aukera ematen duen gailu azkar eta merkea garatu dute. Ohiko laborategia txip baten barruan miniaturizatuta du gailuak. Abantailak: oso azkar egiten du analisis prozesua eta zuzenean erabiltzen du lagina, aldezturik tratatu beharrik gabe.

Goimenek, baserritik salmenta egiten dutenei laguntza. Salmenta zuzena bultzatu eta indartu asmotan, interesa duten baserritarrei, hauek saltzen duten produktuaren logotipo batekin, seinalea jartzeari eskaintzen da, jendek erraz aurkitu eta bertaratzea animatu dadin. Bestetik eskualdean etxetik saltzen dutenen sarea egin nahi da, eskuorri eta Internet bitartez www.kixkurre.com orrian, dohainik, eskaintzaren berri emango zaiolarik. Interesatuak deitu 943 161244 zenbakira.

Emission Cero ekainak 5-14 Madrid. Ekitaldi honetan mahainguruak, eztabaida eta zine dokumentala uztartuko dituzte. Bizitza jasangarriak erantzunen bila honako gaiak landuko dituzte: aldaketa klimatikoa, baliabide naturalak, ekonomia, energia, bioaniztasuna, kontsumoa eta ekodiseinua, elikadura eta gizarteak.

Denetik (XIX)

Maizpide
euskaltegia

Historia / istorioa

Askotan ez ote ditugu nahasten? Istorio hitza gertaera bixia, pasadizoa, ipuina, kontakizuna... adierazteko erabiltzen dugu!

✗ *Xinforok oso historia politak kontatzen zizkigun klasean. (desegokia)*

✓ *Xinforok oso **istorio (pasadizo)** politak kontatzen zizkigun klasean. (egokia)*

✗ *Zinemaren istorioa XX. mendean hasi zela esan genezake. (desegokia)*

✓ *Zinemaren **historia** XX. mendean hasi zela esan genezake. (egokia)*

'Kasuan' gora, 'kasuan' behera...

Makina bat aldiz erabiliko genuen euskaraz, baina gehienetan beharrik gabe, ez baitio ezer gehitzen esandakoari.

✗ *Elkarteko idazkariaren gaixotasunaren kasuan, diruzaina arituko da bere orde. (desegokia)*

Zeruko aingeruok ere nahiago dugu
elkarrekin bizi, bakartuta egon baino;
horrela, lurreko pertsonen istorioak
entzuteko aukera aparta dugu...



*Joxe eta Mariatxo aingeruak...
zeruan yoga egiten...*

✗ *Ikasleak gaizki portatzen diren kasuetan, espedienteak zabalduko zaie. (desegokia)*

✓ *Elkarteko idazkaria gaixorik badago, diruzaina arituko da bere orde. (egokia)*

✓ *Ikasleak gaizki portatzen direnean, espedienteak **egingo** zaie. (egokia)*

Bestalde, epaitegian ez dugu 'kasu'rik izaten, auziak baizik!

✗ *Marta del Castilloren kasuan, badirudi auzipetu gebiango izango dela. (desegokia)*

✓ *Marta del Castilloren auzian, badirudi auzipetu gebiango izango dela. (egokia)*

Isolatu

Goierri gero eta maizago erabiltzen eta entzuten dugu aditz hau, baina Euskaltzaindiak esandakoaren arabera, fisikari buruz ari garenean bakarrik erabili behar dugu! Hona adibide batzuk:

✗ *ETako presoak gela berezietan isolatu dituzte Soto del Realeko espetxean. (desegokia)*

✓ *ETako presoak gela berezietan bakartu dituzte Soto del Realeko espetxean. (egokia)*

✗ *Aralarren txabola isolatu batzuk baino ez dituzu ikusiko. (desegokia)*

✓ *Aralarren txabola bakan batzuk baino ez dituzu ikusiko. (egokia)*

Baina:

✓ *Hidrogenoa isolatu nabian dabilta hainbat zientzialari errusiar! (egokia)*

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Kasu horretan, bere larruan bahengo, zer egingo huke, Hilario?
2. Ez nago ados presoak 24 orduz bakartzearekin!
3. Unai Romanoren kasua egunen batean Estrasburgo-ra iritsiko omen da.
4. Patxi Pantanosen garaian ez zuten Euskal Herriaren historia irakasten!

OHARRA: denak zuzenak, hirugarrena izan ezik (Unai Romanoren auzia behar du).

Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin ☒ aukeratutako kaxan

☐ **Goierri** 27 euro

☐ **GOIERRIKO hitza** 67 euro

☐ **Goierri** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela
helbide honetara:
Goierritarra
Urbalde plaza 7 behea
Beasain

Harpidedunen
arreta zenbakia:
902 82 02 01

Zuen etxebizitzako gelaren batekin, altzariren batekin edo beste zerbaitekin guztiz gustura ez egotea uler dezaket. Batzuetan aldaketa txiki batzuk oso lagungarriak dira inguru aproposago bat lortzeko eta geure etxebizitza eguneratzeko.

Hau guztia azaltzeko etxeko atal batzuk gainbegiratu ditugu eta arazo arruntenei aurre nola egin ikusiko dugu:

Sarrera estua edo pasabide luzea

Horrelakoak egokitzen direnean, onena hormak paper margotuz estaltzea da. Bai kolore bakarreko papez edo paper konbinatuekin, paper marradunak oso ongi geratzen dira sarrere-tan eta pasabideetan.

Logelak zerbait behar du

Lagun baten etxe berrian izan zara eta zure logela desfasatuta dagoela konturatu zara. Zer egin dezakezu? Arazoa, oheko altzariak badira, ohe buru tapizatu bat jarri dezakegu aukera asko ematen baitizkigu: nahi dugun neurrikoa izan liteke, (luzea, estua, altua,) larruz tapizatua edo beste edozein oihalez estalia eta

nahi dugun kolorekoa. Honek guztiak beste gauza eta piezekin jokatzeko aukera ematen digu (oihalak ez baitu egurrak bezainbeste murrizten) eta horrela nahi ditugun ohe mahaitxoak eta altzariak ipini ditzakegu. Nahi dugun estiloan mugi gaitezke.

Ohe burua ipiniko dugun horma paper margotuz estaliko dugu. Aldaketa hauekin eta koloreak ongi konbinatuz gero gure logelak asko irabazi duela ikusiko dugu.

Egongelan argi gutxi

Egongelan argi gutxi dagoenaren irudipena dugunean lehenbizi hormen kolorera joko dugu eta dagoen kolorea baino tonu argiago bat aukeratu dugu horma margotzeko edo estaltzeko. Honez gain leihoak estalita nola ditugun ikusiko ditugu eta oihal zuriak aukeratu ditugu, bai estoreak, panel japoniarrak edo eta kortinak ipintzeko.

Altzari gehiegi baditugu egongelan, garbiketaren (edo birziklaketa) bat egiteko garaia iritsi dela esango nuke, altzarien pilaketak argia kentzen baitute eta egongela txikiagotu.

Argiztapen banaketa ere erreparatu dugu eta argia falta den tokian puntu berriren bat aterako dugu.

Egongela oso polita baina zerbait falta zaio

Egongela oso modernoa eta punta-puntakoa jarri duzu baina ez duzu goxotasunik sentitzen. Baliteke erabili diren materialen isla oso hotza izatea eta oreka bilatzeko egurrezko bukaera duen altzariren bat ipini behar izatea. Bestalde, egungo barne diseinuaren joerak kolorea erabiltzeari beldur dio eta bi gauza gertatzen dira sarritan: koloreekin pasatzea edo kolorerik ez egotea. Kolorea naturan dago eta kolore horietan inspiratzea naturala da, horregatik osagarri bezala koloreen bat behar da ingurua ez moteltzeko.

Bukatzeke

Aldaketa txiki hauekin batzuetan helburu positiboak eta nabarmenak lortzen dira.

Honek guztiak lagundu ez bagaitu, beste zerbait planteatu beharko dugu askoz ere sakonagoa.

Hasi pentsatzen...



Nekane Eskisabel
Atari dekorazioa
Lazkao

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian zabalik
 Eguneroko menua
 Karta
 Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

Arkupe
 ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAIK
 J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Ikaskide
 irakaskuntza eta pedagogia
UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ESKOLA LAGUNTZA - TAILERRAK
 UNIBERTSITATE MAILA
 INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
 IKASKETA TEKNIKAK
 INGELERA

Joan Iturralde, 5 - Beasain
 943 160 120 (arratsaldez)
www.ikaskide.net

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
 ☎ 943 88 72 76

La Salle

Ehun urte, milaka bizi

Joseba Imaz beasaindarrak eta La Salle ikasteko ikasle ohiak, Beasaingo La Salle ikastetxearen ehun urteak bildu

ditu 'La Salle. Ehun urte, milaka bizi' liburuan. Ehun urte hauen errepasoa egin digu Imazek.



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurrira.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Baserriko haragia salmenta zuzena

686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa
www.baserrikoharagia.com



Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)

Dokumentazio lanean aritu behar izango zenuen lehenengo. Dokumentazio asko aurkitu al duzu?

Egia esanda, dokumentazioa nahi adina dago. Lasalletarrek Donostian artxiboa daukate eta Beasaingo ikastetxeari dagokion informazio asko dago. Batez ere dokumentu horietan oinarritu naiz liburua egiteko. Dokumentazioa nahi den guztia dago. Ni ez naiz historiagilea baina historiagile edo ikertzaile batek gehiagorik lortuko lituzke seguraski, Erromara joanez adibidez.

Ikasle eta irakasle ohiekin ere egon al zara?

Bai, dokumentatu eta datu horiek janzten saiatu gara, hemen zeuden argazkiei kolorea emateko, jendeare-

go ere topatu ditut, Lasalletar batzuk ere gordeta zituztenak pasatu dizkirate... Argazki interesgarriak daude. Herriko historiaren aldetik ere interesgarriak izan daitezkeela uste dut. Azaleko argazkian eta 50. urteurreneko jaian oso ondo ikusten da. Herriko pertsonaiak azaltzen direnak ere badaude. Ikusten da ikastetxea urte hauetan, eta batez ere lehenago, jende asko mugitzen zuen ikastetxea izan dela. Gurasoak oso konprometitutako jendea zen. Elizako apaizek ere presentzia eta eragin handia zeukaten. Ikusten da, herriko gauzak, historiak eta pertsonaiek eragina zeukatela eskolaren bizitzan.

Ehun urte, milaka bizi, milaka pertsona, milaka istorio...


Argazki interesgarriak daude liburuan. Herriko historiaren aldetik ere interesgarriak izan daitezke.

kin hitz egin dut. Irakasle eta ikasle ohiekin egon naiz, hemengo saltsetan ibilitako jendearekin. Horrekin lortzen duzu, kolore pixka bat ematea. Dibulgazio liburua izatea nahi genuen, liburu historiagrafiakoa baino gehiago. Urte guzti hauetan batutako esperientzia, elkarbanatutako istorio horiek, pasadizo horiek agertzea nahi genuen, dena jasotzea ezinezkoa da baina. Hori izan da helburua.

Liburuan, argazki ugari dago. Horretan ere material asko dago.

Beasaingo argazki zaharren bilduman, Beasain Jaietan aldizkarian eta abar... ikusten da, herrian ikastetxeak izan duela halako eragin bat. Argazki dezente zegoen bilduta. Artxiboan gehi-

Liburua idazteko proposatu eta onartu nuenean, etxera bidean nindoala, gogoratzen nintzen, aitona nola kontatzen zizkigun istorioak: Untsindik nola taloa eta esnea gosalduta, eta prailetara etortzen zirela ikastera, goizetan. Aita, Ataundik, bizikletan nola etortzen zen La Sallera. Anaiak eta biok ere han ikasi genuen. Konturatzen zara, nik etxean ikusi dudana, beasaindar asko eta askoren istorioa dela. Denok daukagu norbait, La Sallen ikasi duena. Ez bakarrik Beasainen, Goierri osoan baizik. Elkarbanatutako esperientzia dago eta historiko mugari horiek kontatzeaz aparte, mezezi du pasadizoak eta kontatzea. Titulu horrekin horixe azaldu nahi nuen: ehun urte pasatu dira, baina baita



Joseba Imaz La Salleren 100 urteko historia biltzen duen liburuaren egilea.

Sotanarik gabe

“Espainiako Gobernuak ‘Ley de congregaciones religiosas’ dekretua atera zuen 1933an, eta kongregazio erligiosoei klaseak ematea eragozten zien. Eskolaren inguruan nahiko ezinegon sortu zuen. Despedida bat egin zien 1933ko ekaina-uztailan eta irailan, irakasle batzuk azaltzen dira, trajez jantzita. Orduan, Don deitu behar omen zitzairen. Denek omen zekiten Hermanoak zirela baina disimuloan klaseak ematera etortzen ziren. 2 edo 3 urtean, trajeekin etortzen ziren klaseak ematera.

Gaur egun, aldaketa dezente egon da, fusiotik hasita, Lasalletarrek ikusten dute gero eta gutxiago direla eta filosofia aldaketa egon da. Irakasle laikoak geroz eta gehiago ari dira ardura lanetan sartzen eta orain dela 6 urtetik, irakasle laikoa eta emakumea da zuzendaria. Lasalletarrak konturatu dira gero eta gutxiago direla eta kristau eskolaren oinarri hori mantentzeko irakasleak inplikatu behar dituztela. Azken urteetan horretan ari dira saiatzen, besteak beste”.



Lanbide Heziketa

“Beasainen mende hasieran mila biztanle inguru zituen. Industrializazio prozesua hasten ari zen, enpresak zabaltzen ari dira... jende prestatua edukitzea eskatzen zuen, alfabetatua eta oinarritzko gaitasunak zituen. Lasalletarrak asmatzen dute eskaintzen, fabriketan lan egiteko jendeak beharko zuen hezkuntza. Kontabilitate aldetik, marrazketa adetik, kalkulu aldetik asko lantzen zuten. Urte dezentetan gertatu da. Lanbide hezkuntza eskaini zuen 1947tik aurrera. 13-15 urteetan, Lanbide Eskola izan zen La Salle. Ikuspegi sozial batetik, eta hezkuntzaren ikuspegitik, bere papera jokatu du La Sallek”.

ere pasatu dira milaka gauza, milaka jolas, milaka haserre, milaka negar, milaka herritar... Hori nahi genuen azaldu.

Zenbat ikaslerekin hasi zen?

Hasiera-hasieran, 60ikasle ziren. 1920rako, 200 ikasle izatera iritsi ziren. Hortik aurrera, gora-beherak izan badira, kopuru hori mantendu da gutxienez.

Beasaingoak bakarrik ez, eskualdeko ikasleak ere etorri izan dira hasiera-hasieratik.

Bai, beti ibili izan dira eskualdeko ikasleak. Lehenengo urteko matrikula orria begiratuta, oso abizen kuriosoak ikusten dira. Hottman... Hauek imajinatzen dut, hona lanera etorritako ingeniari alemaniarrenak izango zirela, Zeraina minatar etorritakoen seme-alabak... Ikusten da, lehenengo urtetik, gaur egun hainbeste aipatzen den aniztasuna hemen nabari zela. Hasieraik hasi zen inguruko herrietatik jendea

etortzen. Zergatik? Alde batetik, eskola nazionalak zeuden. Erabat dohainikoak ziren (La Salle ere bai, hasieran). Adituren batekin hitz egin beharko zenukete, baina entzun eta irakurri dudanagatik, hemengo jendearekin eskola horiek ez zuten oso ondo konektatzen. Alde batetik, hizkuntza kontua ere izango zela pentsatzen dut, eta hemen, nahiz eta hezkuntzako hizkuntza erabat erdara izan, nolabait ikusten da, bazegoela nolabaiteko errespetu bat. Baita ere noski, garai hartan garrantzia handia zuen erlijioak. Eskola erlijiosoa Goierrin sortu zen eta pentsatzen dut, Elizaren inguruan zebilen sinisdunek,

ahal zutenek behintzat, La Sallera eramango zituela. Beste gauza bat ere nabaritzen da: industrializazioa hasi zenean eta jendea kanpotik etortzen hasi zenean, Extremaduratik, Burgostik... gehienak eskola nazionala joaten ziren. Beranduagoko kronika batean irakurtzen nuen, euskaldun jendeak, baserritarrek-eta nahiago zutela beraien semeak La Sallera eramatea. Bestea, jende behartsuagoea gelditzen omen zen, etorkinena, erdaldunagoa... bazegoela halako banaketa bat hasiera hartan. Orokor-tzea beti da arriskutsua baina... Baserritarrak, langileen seme-alabak, herrian bosterea zeukatenak... elkar-

tzen ziren La Sallen. Interes ezberdinak batzen ziren gu- ne bat zen.

Batzuk bizikletan, besteak trenean...

Bazkaria hartuta etortzen omen ziren. Eskola zahar- rean, sukaldaria zeukaten eta etxetik ekarritako saskia bertan uzten zuten. Bizik- le- tak uzteko lekua ere bazu- ten.

Hermanos, La Salle, prai- le... izen ezberdinez dei- tu izan zaio.

Izen asko eman izan zaiz- kio. Aitonari, prai- le- ak ent- zuten nion, prai- le- etan ikasi zuela. Aitak, berriz, herma- noetan. Ohituraz, herma- no- ak deitzen zitzairen. Herma- no Miguel, Hermano Jose Mari... horrela zuzendu be- har zitzaizkien haurrak erli- jiosoei. Pixka bat galtzen jo- an da. Orain, Lasalletar bati, bere izenez deitzen zaio. Baina hor gelditu da. Herma- notan ikasi zutela esaten zuen beste belaunaldi ba- tek. Gaur egungo belaun- diak, nik uste dut, La Salle esaten dutela.

Edozein erakundek, 100 urte bizitzeko, garaian garaiko egoeretara moldatu beharra dauka.

Orain, La Salle-San Jose da. Mojekin bat egitea, La Salleren historiaren beste mugarri bat izan da.

Edozein erakundek, 100 urte bizitzeko, nolabait, garaian garaiko egoeretara moldatu beharra dauka. Zerbait aipatzekotan aipatu nuke, gizarteko beharrei horiei eskolak erantzuna eman diela 100 urte hauetan. Bilakaera polita da: baserri zahar batetik hasita, 1926an zabaldu eta pabilioi moduko bat eraiki zen, hiru ikasgelekin eta behean pilotalekuarekin. Horrek 1965. urte ingurura arte iraun zuen. Eraikina bota eta gaur egungo eskola eraiki zen. Hezkuntza proiektuaren aktualizazioa ere ematen da. 1980an, ikusten zen, zentzurik ez zuela mutilen eskola bakarrik izatea. 80eko hamarkadan, neskak sartzen hasi ziren. Fusioaren kontua, kontatzen dutenagatik, ez zuten logikoa ikusten, eta LOGSe zetorrela ikusita, neskak eta mutilak banatuta ibiltzea, biak zentro erlijiosoak izanda. Erabaki zuten, bi eskolak batzea. Horrela gelditu da La Salle-San Jose. Etengabeko eguneratzea egon da, gai askotan.

Hezkuntza mailan ere aldaketak izango ziren.

Hasierako hezkuntza, askoz ere zorrotzagoa zen. Dena erdaraz. Erlijioak irakaskuntzak ordutegiaren parte handi-handi bat hartzen zuen. Aldaketa etengabekoa izan da. Baina nik aipatu nuke, Errepublika garaian egon zela halako za-



Sangroniz baserria 1909ko otsailean egindako eskolaren inaugurazioan.

Eraikuntza berria

“Hasierako eskola, oso prekariora zen. Baserri zahar bat zen. Kontatzen dutenagatik, hezetasun dezenterekin. Gerra pasatu ondoren, nahiz eta ondoan, beste pabilioi bat egin, nahiko komerzia zituzten. Hermanoak baserri zahar batean bizi ziren eta eskola berria eskatzen hasi ziren, horrela ezin zela eta bizi. Oso egoera kaskarrean bizi omen ziren. Pabilioi berria egin zenean, eskola majoa zen, handia, baina nahiko prekariora”.

baltze bat. Gizarte osoan oro har eta baita irakas-kuntzan eta La Sallen ere. Hermano euskaldun batzuk zeuden eta euskarazko klaseak ematen hasi ziren. Eguneratze hori, gerra zibilarekin bukatu egin zen eta frankismo oinarrietan indar handia jartzen zuen irakas-kuntzara itzuli zen. Diktadurako azken urteak ailegatzaren ari direla ikusten da, berriz eguneratu beharra zegoela. Euskara aldetik gauzak eguneratzen eta pedagogia aldetik hezkuntza modernizatzen hasi ziren. Etengabeko aldaketak. 60eko hamarkadan, Lasalletarrek konturatzen dira, gizartearengandik gertu egon beharra daukatela, inplikatu. Iruditzen zaie, horretarako, adibidez, sotana traba dela. Sotanak gerturatze horretan ez diela batere laguntzen. 60eko hamarkadan,

Hermano gazteenak sotana kentzen hasten dira. Sinbolikoki, modernizazio horren hasiera izan daiteke. La Salleren ezaugarria horixe izan da, gizartera moldatzen jakin duela.

Beste ezaugarriarik azpimarratuko al zenuke?

Hasiera-hasieratik gurasoek indar handia eduki dute. Azken finean, beti eta orain ere bai, La Salle gurasoena izan da. Hasiera-hasieran ikusten da, herriak berak eskatzen diela Lasalletarrei, eskola bat sortzea. Hasiera-hasieratik La Salleko erlijiosoak guraso talde batekin biltzen dira eta zein irakaskuntza klase nahi zuten galdetu zieten.

Hori sendotzen da, eskola, gurasoen eskuetara pasatzen denean. Hori 1972. urtean izan zen. Hasiera-hasieratik gurasoen partaidetza oso handia izan

da, irakasleena eta herriarena ere bai. Hasieratik oso garrantzitsuak dira: gurasoei entzun egin zitzaielako, herritarrek diru asko jarri zutelako ikastetxea osatzeko eta momentu batetik aurrera, fisikoki, eskola gurasoena bihurtzen delako. Gurasoak dira, Lasalletarrei eskatzen diena eskola hori eramateko. Gaur egun hori ere horrela da eta nik uste dut inplikazio hori oso garrantzitsua izan dela.

Ez hori bakarrik, denbora honetan, Beasaingo enpresari asko izan dira La Salleri lagundu izan diotenak, obraren bat egin behar baldin bazen dirua jarritz. Alde horretatik, inplikazio handia egon da. Adibidez, 60eko hamarkadan, baserri hura erortzen ari zenean, egoera kaskarrean zegoen, eskola berria egin nahi zen eta horrelakoetan arazoa

**La Sallek
gizarteko beharrei
erantzuna ematen
jakin du 100 urte
hauetan.**



beti dirua izaten da. Beasaingo enpresari entzutetsu baten laguntza jaso omen zuten, Jose Osinalderen alegia. Dirua jarri zuen, baina inongo protagonismorik nahi ez zuela esanez. Anonimoki, gaur egungo eskola osoa egiteko dirua jarri zuen. Ikusten da, partaide-tza, laguntza eta antolakuntza aldetik, oso handia izan dela, guraso, herritar, enpresari eta abarren artean.

Herriari ere eman dio La Sallek. Futbito txapelketetarako kantxa, antzokia...

Herriari irekia egon den inpresioa daukat nik ere. Hasi-eratik izan da hori. Eskola zaharraren atzean patio bat zegoen eta hor entsaiatu izan dute dantzariak, abesbatzak, umeak jolasean ibili dira. Eraikin berria egin zenean, oraindik eta gehiago nabaritzen da. Kontuan hartu, 60eko hamarkadaren bukaeran, herriaren ez zegoela azpiegitura handirik, ez kultura aldetik, ez kirol aldetik. Erdigunean, areto bat, kantxa bat egotea... garrantzitsua izan eta da. Herriko talde eta erakunde askok aprobetxatu izan dute. Aurtzaka adibidez, La Salleko dantza taldea eta Goierrri elkartuta sortu zen La Sallen entseiatzen zuten. Franco hil eta gero, trantsizio garaian, alderdi politiko denek mitinak egiten zituzte La Salleko aretoan. Club La Salleri esker, bertan topagunea zeukaten gazteak. Beasaingo La Sallen ibilitako

ikasle ohi batzuek klub moduko bat zeukaten. Foruak egiten zituzten: zinea, irakurketa, musika... Igandeetan adibidez, kontzertuak antolatzen zituzten. Garai hartan ez zen kontzerturik izaten herrian. 70eko hamarkada hasieran izan zen.

Pasadizoak sortzen ziren: Aretoa eskatu zien adibidez, 77. urte inguruan, partidu komunistakoei. Partidu komunistak legalizatu berria zen, jendeak ez zeukan garbi komunistak zer ote ziren... Juntan zailtzak sortu omen ziren baina denei utzi behar zitzaiela erabaki omen zen. Beasainen, partidu komunistaren lehenengo mitina

La Sallen eman omen zen.

La Salleko ikaslea izanda, gertutik ezagutuko zenuen lehen ere. Baina liburua egin ondoren, zer harritu zaitu gehien?


Pertsonalki, horrelako lan batek balio izaten du herriko gora-beherak eta pertsonaiak ezagutzeko. Alde horretatik, oso gustura aritu naiz.

Bestela, gehiena harrituauena? Lehen aipatu dudana hezkuntza arlo hori. Gaur egungo hezkuntza sistema ikusita, askotan pentsatzen dugu garai batean zer erakutsiko ote zuten eskoletan. Espainiako historia eta erlijioa? Konturatzen zara, oso prestakuntza serioa jasotzen zutela. Marrazketa

aldetik, garai hartako ikasleek egindako lanak eta esku-lanak ikusita, harritu egiten zara. Guk txikitzen horrelako gauzarik ez genuen egiten. Orain dela 40-50-60 urte egiten zen lana oso serioa zen. 10-11 urteko umeek egiten zituzten gauzak ez dakit gaur egun egingo genituzkeen. Egia da, pedagogia aldetik, beste gauza bat zela. Baina eduki aldetik, oso lan serioak egiten zituzten. Horrek harritu nau. Eskolan ordu gehiago pasatzen zituzten, sei egunetan klaseak izaten zituzten. Ostegun arratsaldea libre, baina bestela, 9etatik ordubatera eta 3etatik 5,30ak-6etara. Kalkulu asko egiten zuten, kontabilitatea...

Zigorrak eta txangoak

"Zigorrak bereziak izaten ziren askotan. 1930eko hamarkadan zigortu eta patioan zuloa egitera behartu zuten ikaslea, gero arbolak landatu nahi zituztelako Hermanoek. Hermano Miguelek, La Salleko zuzendaria izandakoak kontatzen zidana kurioa da: 1973. urte inguruan, bera zuzendari zela, arratsaldean, ikasle batek atea jo ziola. Mesederen bat zor omen zien ikasle honek. ETakoek multicopista lapurtu behar ziela jakin omen zuen. Garai hartan, propagandaren mugimendua zegoen. Gizona han gelditu omen zen, gau guztia esna, argiak piztuta, gora eta behera, mugimendua zegoela ikusteko. Azkenean, ez omen zen inor azaldu. Berak harro kontatzen du, Beasainen fotokopiadora lapurtu gabeko eskola bakarra izan zela. Eskursioak ere bereziak izaten ziren Errepublika garaian, irakasle euskaldunak zeuden eta Gernikara joan ziren. Sarritan egiten zuten eskursioa hauxe zen, Zumarragaraino trenez joan, autobusa hartu, Loiola bisita eta Loiolatik kostaldera joan, itsasontzian ibili eta bueltan, Beasaina".



Aseginolazatarrak, hiru belaunaldi La Sallen

Eduardo, Felix, Jon, Irati, Haritz eta Ander. Aseginolaza familiako hiru belaunaldi. Aldi berean, Beasaingo La Salle ikastetxeko hiru belaunaldi. Garaiak aldatu direla ez da esan beharrik. Garai batean mojen ikastetxea izan zen eta gaur egun La Salleren zati den San Jose ikastetxean egin dugu hitzordua. Jostailuz eta materialaz betetako ikasgela koloretsu batean.

“Garaiak asko aldatu dira bai, ez dago konparatzerik”. Horixe esan digu Felix Aseginolazak.

Idiazabalgo Eskola nazionalan ibili ziren aurretik Eduardo eta Felix. Eduardok 12 urte zituen eta Felixek 11, orduan hasi ziren Idiazabaldik Beasaina, praileetara etortzen. Sotana beltz eta babero txuridun irakasleak dituzte gogoan. Idiazabalgo eskolaren aldean, oroitzapen onak dituzte La Salletaz. Eduardok honela gogoratzen du: “alde handia zegoen Idiazabaldik hona etortzea. Orduko maisuak, falangistak ziren, falangea kantatzen zen. La Sallen ez zen kantatzen. Alde ederra zen hura. Artean ere zer-bait antzematen genuen”.

Beste aldaketa bat nabaritu zuten Idiazabaldik Beasaina. Publikoan, euskaraz hitz egiteagatik, zigorra izaten zen; La Sallen, errespetatu egiten zuten, nahiz eta “hermanoek” beraiak euskararik ez jakin.

Ikasteko moduan ere bazen aldaketarik Felixek esan digunez. “Idiazabalen adibidez, 6 urterekin hasen ziren eta 14 urtekoak, denak elkarrekin ibiltzen ziren. Hona etorritakoan, 10 urtekoak 10 urte-



Eduardo, Felix, Jon, Irati, Haritz eta Ander. Aseginolaza familiako hiru belaunaldi.

koekin... azterketak egiten genituen”.

Lan mundurako prestaketak ere egiten zituzten La Sallen, tailer mekanikoan adibidez. “Tailerra, mekanikoa, hasita zegoen ordu-rako. Ofizioa ikasteko aukera zegoen. Aristraina, Fabrika Handira... joaten ziren. Lana bazegoen”, diote Aseginolazatarrek.

Gustura etorri ziren beraz, Idiazabalgo eskolatik La Sallera. “Zaplazteko bat gutxiago egunero hona etorrita. Hemen beste libertade bat izan zen”, dio Eusebiok.

Bizikletan


Bizikletan etortzen ziren Idiazabaldik Beasaina. Makina bat kilometro eginda-koak dira. “Kamioiari helduta etortzen ginen askotan. Garai hartan kamioia pasatzen zelarik, guk heltzen ez genuen kamioirik

ez zen orduan. Kamioiak oso geldoak ziren”, dio Felixek. Hori bai, euria edo elurra zenean, etxean gelditzen ziren. Felixek, egunero, bi joan-etorri egiten zituen; “Goizean 9etarako eskolara etorri, 12etan edo 12,30etan irten, Idiazabala joan berriro bazkaltzera, eta buelta berriz ere”, gogoratu du.

Eduardo, zaharragoa bera, bazkariarekin etortzen zen eskolara. “Gu bazkariarekin etortzen ginen. Sekulakoak egiten genituen. Joxepa, sukaldaria zegoen. Hasieran, bakoitzak bere razioa ekartzen zuen eta sukaldariak denak lapiko batera botatzen zituen. Hura ez zegoen jaterik. Hamasairen bat egoten ginen. Segurako batzuk, Zegamakoak, Ataungoak... Gero erabaki genuen, txandaka ekartzea, denentzat. Beti indabak jaten geni-

tuen. Hurrengo egunean eskolara etorri behar ez bazinen, aurreko egunean ekartzen genuen zakua, bestela hurrengo egunean ez zuten jatekorik izango. Eguerdi askotan, eguraldi onarekin, ogitartekoarekin etorri, bizikleta hartu eta Erauskina joaten ginen. Igo gainera! 12 urte genituen orduan!”.

Oroitzapen eta istorio ugari. Mendeurreko ekitaldietan parte hartzen ari dira Aseginolazatarrak bai-koitzak bere aletxoak jarritz. Felixek adibidez, bideoan parte hartu du eta Eduardoren ikasketa diploma, ‘Ehun urte, milaka bizi’ liburuan. Jon, juntako kidea da eta gazteenek, bertan ikasten dute. Ekainaren 28an bukatuko dituzte mendeurren ekitaldiak eta La Salleren historiaren parte izan dira eta dira oraindik ere.



www.iragarkilaburrak.com
uztarria.iragarkilaburrak.com
txintzarri.iragarkilaburrak.com
otamotz.iragarkilaburrak.com
elgoibarren.iragarkilaburrak.com
soraluze.iragarkilaburrak.com
bidasoamedia.iragarkilaburrak.com

ukberri.iragarkilaburrak.com
oarsoaldekohitza.iragarkilaburrak.com
tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com
11barri.iragarkilaburrak.com
urola-kostakohitza.iragarkilaburrak.com
irutxulokohitza.iragarkilaburrak.com
busturialdekohitza.iragarkilaburrak.com

milaka bisita, egunero

saltzeko
erosteko
eskaintzeko
eskatzeko
aurkitzeko

...

zure-azoka

Erregistratu zaitez
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

norbanakoak
doan

enpresak
leku eskusiboa

jarri zure
iragarkia!

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa
100.000aleko zabalkundearekin.



Km 236 Paris Brest Paris 2003


Rafael Peguero 1.200 kilometroko zikloturista

Hamabost urterekin, txirrin-
duarekin, Larraitz ezin igo
zebilela, nork esango zion
Rafael Peguerori, egunen batean,
1.200 kilometroko proba bat egin-
go zuela! Ahaleginak emaitza izan
du: Paris-Brest-Paris, 1.200 kilome-
troko proba bi aldiz egin du eta
Madril-Gijon-Madril behin. Aurten
nahi bezala ez dabil eta azkenean
ez du Madril-Gijon-Madril egingo.
Hori bai, Quebrantahuesosen, ha-
malaugarren aldiz parte hartuko
du, lagunartean. Proba luze hauen
nondik norakoen berri eman digu
Rafael Peguero beasaindarrak.



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN



Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA



MUJKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Hamabost urte zituenean, lagun batek, bizikleta zahar bat utzi zion Rafael Peguerori. “Garai hartan, gizena nengoen, Falet bezala nengoen. Larraitz bultzaka igotzen nuen, gero Alegitik itzultzen nintzen. 40 km horiek niretzako Tourreko etapa bat bezalakoak ziren”, gogoratu du Rafael Peguerok.

Dena den, bizikletan jarraitu zuen eta bere bizitza aldatu zen. Larraitz igo ezinik ibiltzetik, zikloturisten 1.200 kilometroko probak egitera pasatu zen. Paris-Brest-Paris adibidez. “Hamahiru urterekin txirrindularitza aldizkari baten erreportaje bat irakurri nuen, baina hori ezinezko ametsa bezala ikusten nuen”, azpimarratu du beasaindarrak.


Baina, 1999an, Paris-Brest-Paris parte hartzea erabaki zuen. Proba horretan parte hartzeko aukera izateko, aurretik, 200, 300, 400 eta 600 kilometroko brevet deituriko probak egin behar izaten dira. “Probak egin nituen baina ez nintzen joan”.

Hurrengo bi ekitaldietan bai, 2003an eta 2007an parte hartu zuen beasaindarrak. Lau urtean behin egiten da Paris-Brest-Paris. 2005ean, Madril-Gijon-Madril egin zuen.

Aurten, gaizki

Proba horietan parte hartzeko, fisikoki ongi egoteaz gain, psikologikoki ondo egotea garrantzitsua da Pegueroren esanetan. Eta aurten, burua huts egiten ari zaio, beasaindarrak aitortu duenez. Azkenean, ez du abuztuan, Madril-Gijon-Madril egingo. “Aurten erdi lesionatuta nabil. Futbola eta txirrindularitza ez dira oso bateragarriak. Azkenean animoan ondorioak ekartzen ditu. Saiatu arren, ezinezkoa izango da aurten Madril-Gijon-Madril egitea”.

Hori bai, hainbat eta hainbat goierritarrek egiten



“Stelvio igotzea gustatuko litzaidake”

Txirrindulari bat:

Lale Cubino, dudarik gabe.

Proba bat:

Paris-Brest-Paris.

Portu bat:

Stelvio igotzea gustatuko litzaidake.

Ibilbide bat:

Eguraldi onarekin, Kostaldeko Itzulia.

Janari bat:

Martinez Goxotegia??

Edari bat:

Bizikletan, Coca-Cola, nire Epoa.

Amets bat:

Jubilaziora osasun betez ailegatzea.



Urtean 11.000-12.000 km
egiten ditut bizikletan.
**Fisikoki ondo egotea baino
garrantzitsuagoa da
burua ondo edukitzea.**

duen Quebrantahuesos proban parte hartuko du. Azkeneko aldia izango dela adierazi digu. “Aurtengoarekin 13.ena izango da. Eta espero dut azkena izatea. Asko aldatu da. Pentsa, ni bi alditan badaezpada ere gaez lan egin, goizeko bostetan kotxea hartu eta iteeran inskripzioa egin izan dut. Orain jendeak proba profesional bat bezalaxe prestatzen du. Urte osoan ibiltzen dira, egun batean denbora ona egiteko. Obsesio handia dago. Ni horretaz oso nekatuta nago. Eta inskripzioa egiterakoan aurten izugarria izan da”.

Prestakuntza

Era honetako probetarako prestakuntzarako ez dago sekretu handirik, Pegueroren arabera. Entrenamendu motaz galdetu diogu. “Nire kasuan, entrenamendu hitza gorrotatzen du. Ni bizikletan ibiltzen naiz gustatzen zaidalako, droga bezalakoa da. Erritmo lasai eta konstante batean kilometroak eta kilometroak egitea da, ez dago besterik. Urtean 11.000-12.000 km. egiten ditut. Baina proba hauetarako garrantzitsuena burua da, nik esango nuke % 80”.

Goierriin, gainera, aukera polita omen dago txirrinduan ibiltzeko. “Bai, eta ibilbide politekin. Baina orain egiten dituzten bidegorriekin errepideak estuagoak geratu dira. Eta gure gure aldetik, badaude txirrindulari batzuk behar bezala ibiltzen ez direnak”, azpimarratu du beasaindarrak.

Ametsez ere galdetu diogu Rafael Peguerori. Alpeetaraino eraman gaitu. “Alpeetan prestatutako ibilbide bat egitea du amets: Nizatik Leman lakuraino. 1.000 km.ko ibilbidea, 30.000 metroko desnibela eta 24 mendaterekin. Iaz nik prestatutako Transpirenaika bat egin nuen: 1.000 km., 20.000 metroko desnibela eta 21 mendaterekin”.

Paris-Brest-Paris, 1.225 kilometro: 73 ordu bizikleta gainean

Paristik Bretainiaraino, Bresteraino, joan-etorria. Horixe da Paris-Brest-Paris zikloturismo proba. 1.225 kilometro hain zuzen ere. Superbrevet probak deitzen zaie horrelako probei. Gehienez ere, 90 ordutako epea dago ibilbide hori egiteko. Rafael Peguero beasaindarrak bi aldiz egin du Paris-Brest-Paris, 2003an eta 2007an. Lehenengo urtean, 74 ordu eta 23 minutu behar izan zituen joan-etorria egiteko. Bigarrenean, berriz, hiru minutu gehiago: 77 ordu eta 39 minutu.

Espainian ere egiten dute antzeko proba bat, Madril-Gijon-Madril, 1.217 kilometrokoa hau ere. Horretan, 2005ean hartu zuen parte. 73 ordu eta 49 minutu behar izan zituen proba amaitzeko. Horrelako probetan, postua ez da kontuan hartzen. Bukatu duten txirrindulari guztiei, argazkiaz gain, oroigarri bana bidaltzen diete antolatzaileek, egin duen denbora grabatuta.

Dena segidan egiten ote duten, lorik egiten ote duten... galdera asko sortzen dira. Rafael Peguerok honela erantzun digu: "abentura bat bezalakoa da, gu autosufizienteak izan behar gara. Ibilbidean 15 kontrol dauzkagu, eta ordu batzuen tartean pasatu behar gara bertatik. Proba bukatzeko 90 ordutako dago epea da", dio.

Beasaindarrak, hiru egunetan egin izan ditu 1.200 km.. "Lehenengo egunean 530 km egiten ditut lorik egin gabe; bigarrenean 400 km eta hirugarrenean 300 km. Bigarren eta hirugarren egunetan hiru ordu lo egiten ditut. Kontrolak oso ondo prestatuak daude lo egiteko eta jateko. Ni behin, telefono kabina batean lo geratu nintzen. Buruko nekea da arriskutsuena, animoan gorabehera asko izaten dira, fisikoan baino gehiago", azpimarratu du.

1931tik

Jarraitzaile asko dituzte superbrevet probek. 'Randonneurs' deitzen zaie horrelako probak egiten dituztenei. "Giroa izugarria izaten da. Hogeita hamar herrialdetako jendea irteten gara. Azkeneko ekitaldian 5.200 izan ginen. Bidea, jendez beteta, txalotzen eta guri laguntza emateko prest. Gehienak, 40-50 urteko gizonezkoak. Emakumezko batzuk ere irtetzen dira. Ordiziar bat irtetzen azken ekitaldian eta beste pare bat goierritar ere irteten izan dira beste ekitaldietan".

Paris-Brest-Paris proba, 1931. urtetik egiten dute, lau urtean behin. Ibilbide malkartsua da, 10.000 metroko desnibelarekin. Era honetako probetan, mitikoetan mitikoena da. Madril-Gijon-Madril, berriagoa da. 2005. urtean egin zuten lehenengo edizioa.



2007. urtean, euritan egin behar izan zuten ibilbide osoa. Ordutik, lobi-babesak edo guardabarroak jarri dizkio bizikletari, bai aurreko, bai atzeko gurpiletan.

Nik hiru egunetan egiten ditut:
lehenengo egunean, 530 Km egiten ditut
lorik egin gabe; bigarrenean 400 km.
eta hirugarrenean 300 km.
Bigarren eta hirugarren egunen tartean,
hiru orduko loa egiten dut.

**RENAULT
LAZKAO GARAJEA**

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

**izal**

IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

Montse Auzmendi beasaindarra, Eusko Legebiltzarreko Legelari Nagusia



Hernaniko Musika Eskolan 16 urtez piano irakasle izan ondoren, 2000. urteaz geroztik, Gasteizko Legebiltzarreko legelari taldean ari da lanean, bertako lege aholkulari lanean. Maiatzaren 6an izendatu zuten Montse Auzmendi beasaindarra, Eusko Legebiltzarreko Legelari Nagusia. Hurrengo egunean, Gernikako Arbolaren azpian izan zen, Patxi Lopezek lehendakari karguari zin egin zionean. Legebiltzarrean izan gara, bere bulego berrian.

Legelari Nagusi karguaren proposamenari baiezta emateko, asko pentsatu behar izan al zenuen?

Ez. Niretzat erronka bat zen eta gustuz hartu nuen proposamena. Banekien, lan polita izango zela. Gauza horiek ez dira gehiegi pentsatzen. Pentsatu zertarako? Nahi baldin baduzu eta gustatzen baldin bazaizu, aurrera! Niri ardurak hartzea asko gustatzen zait. Erosoago sentitzen naiz ardura daukadanean eta presioa daukadanean. Ardura gehiago daukat momentu honetan baina niretzat ez da lan berria. Lana ezagutzen dut, etxea ezagutzen dut, 9 urte daramat hemen

eta oso pozik nago. Beste ikuspuntu batetik ikusten duzu etxea edo lan parlamentarioa.

Zure lana asko aldatuko al da?

Lehen, legelaria nintzen. 2000. urtean sartu nintzen hemen eta legelari hutsa izan nintzen. 2004an izendatu ninduten, pertsonaleko burua. Antolaketa eta giza baliabideen zuzendaria izan naiz orain arte. Kargu horretan lan dezente zegoen. Aukeraketa, oposaketak, formazioa, plangintza linguistikoa ere eramaten genuen... Oraingo lana, juridikoagoa izango da. Mahaia aholkatzea, bozeramaile batzordea... legelari nagusia Administrazioaren burua da. Administrazioak 7 sail ditu eta multzo guzti horien arduraduna ni naiz. Lan polita da.

Lehenengo emakumezkoa al zara kargu honetan?

Bai. Zerbitzu juridikoetan emakume bakarra naiz. Zuzendaria nintzenean, zuzendari emakume bakarra nintzen baita ere. Nahiko mundu maskulinoa da hau. Baina aurrera goaz pixkanaka-pixkanaka.

Legelariaren lana zein izaten da?

Etxe honetako gai juridiko guztiak guk eramaten ditugu. Gai juridikoak ez dira politikoak bakarrik. Edozein arrazoiengatik, Kontentzioso Administrazioak egon daitezke. Parlamentuak obrak egiten dituela, Udaletxearekin konfliktoren bat baldin badago obra dela eta, horretarako gaude. Oposaketak direla eta oposaketara aurkeztu den norbait ez dagoela konforme oinarriekin... gu horretarako gaude. Gero, gai politikoak, ikuspegi juridikotik aztertu egiten ditugu. Auzitegi Konstituzionalaren aurrean gure lege baten aurkako errekurso bat baldin badago, alegazioak guk egin behar ditugu. Gai juridiko guztiak gure eskutatik pasatzen dira. Etxearen abokatuak gara.

Legeak egiteko garaian, zuek ere parte hartzen al duzue?

Bai. Lege proiektu edo proposamen bakoitza, gaiaren arabera, batzorde batean sartzen da. Hezkuntzarekin zerikusia baldin badauka lege proiektuak, Hezkuntza batzordean sartzen da eta Hezkuntza batzordeaz legelari bat arduratzen da. Pro-

Gernikako Arbolaren azpian

Maiatzaren 6an jakin eta hurrengo egunean izan zen Patxi Lopezek lehendakari kargua hartzeko protokolo jarduna, Gernikako Arbolaren azpian.

Gernikako Arbolaren azpian egon zinen, Patxi Lopezek lehendakari kargua hartu zuenean. Zer sentitu zenuen?

Nik Mahaia aholkatzen dut. Mahaiak dituen ekintza juridiko guztietan legelari nagusiak egon behar du eta hori ekintza juridikoa zen. Horregatik nengoen ni mahaikideekin. Niretzat ere kuriosoa izan zen. Bezperan izendatu ninduten eta justu hurrengo egunean protokoloeko ekimen horretara joan behar. Pozik, baina oso urduri nengoen.



- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA



Zuzenbidean lizentziatua

2000. urtean sartu zen Eusko Legebiltzarrean, Zuzenbide ikasketak bukatu eta urtebetera. Donostiako Zuzenbide fakultatean, urtebete Zuzenbide Erromatarra ikasgaiko irakaslea izan zen. Hurrengo bi urteetan, Gasteizko fakultatean, Zuzenbide Administratiboa eman zuen.



zedura legelari horrek eramaten du. Prozeduraren egokitasuna legelari batek eramaten du.

Legelariak zer egiten du, juridikoki aholkatu ala edukari buruz ere bai?

Ez, gure lana, formala da. Batzuetan, artikulua nola erredaktatu behar den aholkatzen dugu, baina ez eduki aldetik, garbitasun juridikoaren aldetik. Adibidez, artikulua bat ez da izan behar, baizik eta xedapen gehigarri bat... gauza formalak. Ikusten baldin bada zer edo zer inkonstituzionala izan daitekeela, kontraesan bat dagoela artikulua batzuen artean... guri dagokigu, hori esan eta aholkatzea. Baina gure lana ez da materiala, forma aldetik baizik. Prozedura aldetik nola

eraman behar diren: epeak, zuzenketak ikusi ondo planteatuta dauden ala ez... baina beti formaren aldetik, prozeduraren aldetik.

Ibarretxeren Kontsulta legeak adibidez, nahikoa zeresan eman zuen.

Proiektu bat edo dokumentu bat aurkezten baldin bada, gu ez gara sartzen esaten konstituzionala den ala ez, ez badigute galdetzen. Baina gauza puntualak izan daitezke artikulua bat inkonstituzionala den ala ez.

Lege bat konstituzionala den ala ez jakiteko, Auzitegi Konstituzionala dago. Ez da gure zeregina.

Politikoki, Jaurilaritza eta Legebiltzarrean aldaketa izan da. Zuen lanean aldaketarik izango al da?

Aldaketa izaten da, pertsonen estiloak aldatzen direnean baina ez justu alderdi batekoa edo bestekoa izan. Jefe guztiak ezberdinak dira, pertsona guztiak ezberdinak dira, bakoitzak estilo bat ipintzen dio hemengo

zereginari. Bestela, guk gure lan juridikoa egiten jarraitzen dugu, Administrazioa zuzentzen eta gauzak ahalik eta ondoena egiten.

Ni funtzionaria naiz. Gure papera, legelari guztion papera, eta momentu honetan ni nagusia naizen aldetik, gure papera, instituzionala da eta gure ezaugarri bat izan behar da inpartziala izatea. Presidenteak proposatzen dio Mahaiari legelari nagusia, eta norbaitek ikusi dezake kutsu politikoa. Baina ez dago. Presidente beti izango da alderdi batekoa ala bestekoa. Hori ezinbestekoa da. Zerbitzu juridikoetatik beti norbait aukeratu behar da. Baina ni ez naiz politikaria eta ez da nire eginkizuna eta bokazioa.

Eusko Legebiltzarreko gai juridiko guztiak guk eramaten ditugu.
Etxearen abokatuak gara.

Piano jolea

Musikaren arloan ezagutu zintugun. Piano irakaslea zinela bagenekien, kontzertuak ere ematen zenituela...

Nire aurreko lanbidea, musika izan zen. 1984tik 2000. urtera, 16 urtean, Hernaniko Musika Eskolan piano irakaslea izan nintzen. Kontzertuak ere ematen nituen. Baina erdi aspertu nintzen eta Zuzenbideko Karrera egitea erabaki nuen. Hasi eta hasieratik, animatuta. Oso ondo joan zitzaidan karrera. Karrera amaitu eta fakultatean bertan Zuzenbide Erromatarra ematen hasi nintzen. Ikasurte batean egon nintzen. Eusko Legebiltzarrean bi legegari plaza atera ziren, aurkeztu eta plaza atera nuen. Harrezkeroztik, etxe "santu" honetan nago, oso gustura.

Zure bizitzan, aldaketa handi samarra, ezta?

Aldaketa gogorra bai. Ez dauka batek bestearekin zerikusirik. Baina egia esan, ni oso moldagarria naiz. Oso erraz egokitzen naiz gauza guztietara. Hona etorri eta segituan sentitu nintzen etxean.

Umeekin lan egitetik politikoeekin lan egitera beraz.

Azken txanpan ez nuen lanik egiten umetxoekin. Heldu dezentetortzen ziren eta horrekin nahiko aspertuta nengoen. Helduei musika ematea nahiko zaila da. Umeekin oso gustura. Oroimen politak ditut. Oso gustura egon nintzen. Oso etapa polita izan zen. 19 urterekin hasi nintzen eta klaseak emateko momenturik onena da. Gaztetan, ilusioa, indarra, gogoia daukazu umeekin egiteko, txorakeriak egiteko... zahartzen zarenean, dinamika horrek gehiago nekatzen zaitu.

Pianoa jotzen al duzu oraindik?

Oso denbora gutxi daukat. Noizean behin saiatzen naiz aritasuna eta erreperitorio txiki bat mantentzen. Auskalo egunen batean esango dut banoa berriro. Baina ez dut uste.



IBAI ONDO



Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea

ORDIZIA

Tel.: 943 087 486

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



Gaintza

KONDAIRA. OHITURAK. ERLIGIOTASUNA

Emeterio Sorazu Ugartemendia

Seroren zereginak Gaintzan

Emeterio Sorazuk idatzi duen 'Gaintza. Kondaira. Ohiturak. Erligiotasuna' liburua birrargitaratuta da. 1986tik 1993ra, Gaintzan apaiz egon zen garaian, herritarrei jasotako hainbat istoriorekin osatu zuen aspaldi agortu zen liburu hura. Orain liburua txukundu eta itxura berria emanda kaleratu du. Adibide bezala seroren zereginen inguruan idatzitako kapitulua da orri hauetakoa.

Gaintzako Kristau Elkartek bi serora-etxe ezagutu zituen bertako agiri zaharrek diotenez. Etxe bat, zaharrena, San Martin Ermitaren alboan, ezkerreko aldean, San Martin zelaia izenekoan. Eta bestea Gaintzako Mikel Goiangeru Donearen Parroki ondoan, Sagasti-berri izeneko lurretan. Dirudienaz, serora-etxea egin zutenean, beronen bizimodurako herriak sagasti berri bat aldatu bait zuen.

Serorak, nortzuk izaten ziren? Nola aukeratuak? Zertarako? Serora edo "beata" deitura hartzen zuten emakumezko hauek Parroki eta Ermitako zerbitzu eta zaindaritza eramaten zutenak dira.

Serora izateko, edo borondatez, edo diru-dote bat emanaz lortzen zuten. Eta serorak izan behar zuten, edo ezkongabeak, edo alargunak. Hori bai, beti herrikoak.

Hauen aukeraketa honela gertatu ohi zen. Lehen-

dabizi herritarren artean eskabidea egindakoen arteak aukeraketa bat egiten zuten publikoki. Ondoren, Iruina-ko Gotzainari bakoitzaren egokitasuna eta balioak azpimarratuz aurkezten zitzaizkion. Eta honek nonbramentu ofiziala ematen zion egokiena zerizkionari. Nonbramentu hau bizitza osorako izan ohi zen.

Serora hauek janzkera berezi bat erabiltzen zuten: edo San Frantziskoren jantzia, edo Santo Domingorena, edo Karmengo Amarena.

Seroren eginkizunak asko ziren. Hona hemen batzuen aipamena.

Eliza zaintzeko hainbat zerbitzu:

- ✕ Aldareko Sakramentu Santuari argia piztu (olioa eta kandelak).
- ✕ Pazko zuzia (zirioa) larunbatean piztu.
- ✕ Mezatarako osti handia eta txikiak egin.
- ✕ Eliza osoa garbi eduki.

✕ Elizako atak ireki eta itxi bere garaian.

Ospakizunetarako behar ziren gauzak moldatu:

- ✕ Aldareko zapiak garbitu eta txukun zaindu.
- ✕ Meza Nagusitako ofrendak (ogia, erresponstu diruak, opilak...) jaso eta apaizari eman. Gero 'karidade' izenean, janari horiek behartsuari banatzeko. Ofrenda berari 'produe' deitzen zitzaion.

Kanpaiak jotzeko eginkizuna:

- ✕ Egutero, hiru aldiz kanpaia jo Goiz-alban (argi ezkila, 32 joaldi).
- ✕ Eguerdian (Ave Mariakoan, 12 joaldi).
- ✕ Iluntzean (Aimaritakoan, beste 32 joaldi).
- ✕ Larunbatean, ordu bietan kanpai bueltakoak, igandearen hurbiltasuna gogoratzen.
- ✕ Igandean, goizeko Meza ondoren, kanpai txikiak (etxeakoandreek Mezatan

izandako gizonezkoei gosaria etxean presta ziezaioten).

- ✕ Ostiraletan, hiruretan, Jesusen heriotza gogoratuz eta kristauei inbitatuz eskari hau egitera: Adoratzeko eta bedeinkatzeko zaitut Kristo, zergatik gure Gurutze Santuarekin erredimitu zenduan munduan.

Norbaiten agonian, heriotzan, elizkizunean...:

- ✕ Heriotza aurrean eta ondorenean ere kanpaiak jotzen zituzten. Bai, norbait agonian zegoela; bai, Apaizak gaixoari Elizakoak eramatean.
- ✕ Eta heriotza gertatzean, gizonezkoei, hasieran bi batekoak hirutan; segidan, bi handi eta txiki bat, bederatzi aldiz; eta bukaeran, bi batekoak hirutan.
- ✕ Emakumezkoei, berriz, hasieran, bi batekoak bi aldiz; ondoren, handi bat



Gaintzarrak elizatik irtetzen iazko San Migel egunean.

eta bi txiki bederatzi aldiz; eta bukaeran, bi batekoak hirutan.

- X Eta hildakoaren gorpua Elizara andan zekartenean. Orduan, bide gurutze bakoitzean, apaizak edo serorak errespontsua otoizten zuelarik.
- X Hileta elizkizunetan, hildakoaren bederatziurrenean, eta urteko igandetan (hil Mezak) produkoburua egiten zuen.
- X Urtean hildakoen sepultoretan, argizariak piztu Meza Nagusietan. Baita Azaroko igandeetan.

Hildakoaren etxean:

- X Hilberria txukundu eta jantzi.
- X Beronen ezpainak eta esku barruak menta belar-

ren ukenduz igurtzi, hilezkortasuna gogoratuaz.

- X Hildakoa zegoen gelako ispiluak trapuz beltzez estali. Leihoa erdi-irekian eduki, itzalik bertan sartu ez zedin.
- X Hilberriaren alde auzotar guztiekin, ilunabarrean, hamabost misterioako Arrosarioa errezatu.
- X Gorpua kaxan zegoela, elizako ur bedeinkatua erramu adar bedeinkatuarekin jarri, adiskideak etortzean, 'Pater noster' bat errezatzean, gorpua- ren gainean gurutze eran zirtatzeko.
- X Nahiz ofrendarako edo errespontsurako ematen zuten dirua jasotzeko bandeja berezi bat jarri.
- X Hildakoaren gainean, be-

re bizitzan irabazitako buldak (Elizaren indulgentzi paperak) jarri.

Bataio ospakizunetan:

- X Norbaiten bataiorakoan, kanpaia jotzen zuen.
- X Haurren bataiorakoan, aitak eta aitajaun-amandreak kandelarekin laguntzen zieten.
- X Berdin, haur bataiatuarekin ama bera, berrogei egunera 'Elizan sartzea' ospatzean.
- X Elizan zeuden San Jose eta Andre Mari irudiei kandela bana piztu, bataiatu berriaren sendiaren aldeko bedeinkape- na eskatuaz.

Zenbait sakramentu ospatzean:

- X Ezkontza elizkizunetan bera izaten zen testigu nagusia; eta ezkonberriei berak jartzen zien 'uztarria' (zapi zuria) buru (emaztegaiari) eta bizkar gainean (gizonezkoari).
- X Ezkongaiak ekarritako eraztunak eta arrak zapi zuriko bandejetan prest jarri.

Errogatibetan:

- X Baita, nahiz prozesioa, nahiz errogatiba eta konjuruak gertatzean.
- X Apaiza eta Sakristauarekin batera bidean doazela ur bedeinkatua eraman, eta bide-gurutzetan, ura bota, auzotarren bedeinkapenerako Santuen letaniak abestuaz.

Benetan zerbitzu ugari izaten ziren serorak egitekoak. Aste egunetan, eliztarren Jaunaren aldeko bitartekotasuna luzatuaz. Batez ere igande eguneko hainbat zerbitzu.

Atentzio handia zuen hildakoaren inguruan eginitako hainbat erritu, errezu eta ohitura zainduaz. Eta elizkizun hauen ordainez base- rri bakoitzekoek zer ematen zieten? Urtero, anea bat gari; anea bat, arto; lakarri bat babarrun; sutarako gurdi bat egur; txandaka, gazta, ardi-ilea; gaztainak; sagarrak; ofrendako ogia; bataioko olioia; ezkontzako oilasko pareaa...

Serora hauek herri erligiotasunezko Santuen debozioa asko eta asko zaindu izan zuten. Nahiz bakarka, nahiz famili batek, nahiz Ermandade batek, nahiz herri osoak Santuari laguntasun eta mesede eske agertzen zutena, berak otoitz eginaz Santuen bitartekotasuna zaintzen zuen. Eta inoiz, eguraldi edo ekaitza nabaritzean: konjuruak errazatu; erramu hostoak, edo San Juan txortako lore bedeinkatuak, bi teilen artean etxe aurrean erre, lau aldeetara ur bedeinkatua botatzen zuelarik, ekaitza urrutiratu zedila eskatuaz.

Garai batean, serorak otoitz egiteko leku berezia zuen: Seroraren pulpitoa. Bertatik otoitz eta deboziozko irakurketak egin ahal izateko.

Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin ☒ aukeratutako kaxan

☐ **Goierriarra** 27 euro

☐ **GOIERRIKO hitza** 67 euro

☐ **Goierriarra** + **GOIERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela
helbide honetara:
Goierritarra
Urbalde plaza 7 behea
Beasain

Harpidedunen
arreta zenbakia:
902 82 02 01



Ataun

Otso festa

Ekainak 12, ostirala:

18:30ean: Herri antzokian, Lazkao Txiki Musika Eskola eta Otsoak dantza taldearen emanaldia. Trikitilariak, pianojoleak, gitarrajoleak, abeslariak, dantzaria, eta abar.

Ekainak 13, larunbata:

22:30ean: Herri Antzokian, Kepa Junkera & Melonious Quartet musikarien, 'Fandango Provença sessions' diskaren aurkezpena. Sarrera: 15 euro. Herriko tabernetan aurrez salgai.

Ekainak 14, igandea:

09:30ean: XLV. Ataun San Martin proba, Agauntza Txirrindulari Elkarteak antolatuta.

Ekainak 21, larunbata:

10:00etan hasita, finalak Auzoeta kiroldegian. 10:00etan, tenisa; 11:00etan pala; 12:00etan, frontenisa; 13:00etan, esku pilota. Ondoren, sari ematea.

Legorreta

Corputs eguna

Herriko festak bukatu zaharrak ez badira ere, beste festa egun bat gehiago izango dute ekainaren 13an legorretarrek: Corpus eguna. Jarraian duzue egitaraua:

09:30ean: Diana.

10:30ean: Haurrentzako krosa.

11:30ean: Helduentzako krosa.

13:00etan: Krosaren saribanaketa.

18:00etan: XX. Ardo dastatze txapelketa.

18:30ean: Udalak Zahagi ardoa jarriko du herritar guztientzat.

19:30ean: Usariozko meriendak plazan.

23:00etan: Euskal abestiak: 'Piano bat bertsotan' musika emanaldia Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazaranen eskutik.

Beasain

La Salleren mendeurrena

La Salle ikastetxearen mendeurrenako ekitaldiak bukatzen ari dira baina oraindik ere bada zertaz gozatua. Ekainaren 13an, beteranoen partidak izango dira. Goizeko 11etan hasita, saskibaloia eta eskubaloia partidak eta ondoren, hamaiketakoa.

Ordizia

Lore lehorren ikastaroa

Ekainaren 10, 17, 24 eta uztailaren 1ean, 19:00etatik 21:00etara, Barrena kultur etxean, lore lehorren tailerra hasiko da. Antolatzaileak: Hitzaro eta Udala. Matrikula 22,50 eurokoa da eta ekainaren 3an amaituko da izena emateko epea. Izen-emateko esku-orriak Udaleko Herriarren Arreta Bulegoan edota Hitzaron (Milagrosa eraikin ohia) jaso litezke.

Poltsiko Ikuskizunak

Ekainaren 5an, bukatuko da Poltsikoko Ikuskizunak kultur programa. Kunka taldearen 'Los colores del humor' eskainiko da, ohi bezala, Barrenan, gaueko 10,15etan. Azken emanaldi horrekin batera Kimetz XV. Literatura Lehiaketan irabazleak gertatu diren lanen sari banaketa egingo da.

Lazkao

Kantu afaria

Kanta-Kantari ekimenaren barruan, kantu afaria izango da ekainaren 5ean, gaueko 8,30etan, Domarda elkartearen. Izena, Gerriko liburudendan edo Domarda elkartearen eman behar da.

Ekaineko ekintzak

Ekainak 5, ostirala:

18:00etan: Poxpolo eta Mokolo, Areria Kultur gunean.

Ekainak 12, ostirala:

16:30ean: Eskulan tailerra, udaletxeko arkupeetan.

Ekainak 14, igandea:

16:30ean: 'Kanpanilla eta Peter Panen itzala', Areria Kultur gunean.

Idiazabal

Ekainak 7, San Adrian eguna

07:00etan: Otzaurterako autobusa Mujika jatetxearen aurretik abiatuko da. Autobusean joan nahi duenak ekainaren 5, ostirala, eguerdiko ordu bata baino lehen izena eman beharko du udaletxeko idazkaritzan.

Eguerdian, txistulariek San Adriandik bueltan datoze-nei harrera egingo diete herri sarreran.

14:30etan: Bazkaria herriko plazan (5 euro). Erromeria-
ra joateko izena eman dutenek bazkaria doan izango dute.

18:00etan: Herriko haurren dantza saioa pilotalekuan txistulariek lagundurik.



Idiazabal

Oskorriren Pub Ibiltaria

Ekainaren 5ean ostirala, 22:00etan Zelaako kiroldegian 'The Pub Ibiltaria 13; Oskorriren abentura bat' musika emanalida izango da kultura komisioak antolatuta.

Gabiria

Udaberri kulturaleko azken ekintzak

Ekainaren 7an izango dira Udaberri kulturaleko azkeneko bi ekintzak. Batetik, goizeko 11,30etan hasita, ko-txe zaharren erakusketa izango da egun guztian. Bestetik, arratsalde partean, 17:00etatik aurrera, Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoen ikuskizuna izango da.

Goierri

AHTren aurkako ekimenak

Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanak, hainbat ekintza antolatu du egunotarako Goierriin.

Ekainak 6, larunbata:

Ormaiztegiko eta Gabiriako gazte asanbladek antolatuta: 18:00etan txosnen irekiera, eta Dizebi grafitigilea; 18:30ean, antzerkia; 20:00etan, herri afaria; 22:00etan, kontzertua.

Ekainak 7, igandea:

Zaldibiako Antzokian, 18:30ean, bertso saioa: Aitzol Barandiaran, Uxue Alberdi, Maddalen Arzallus, Julio Soto, Mantxi eta Iker Zubeldia. Gai jartzailea: Saroi Jauregi.

Ekainak 13, larunbata:

Arratsaldeko 5etan, Itsasondotik Ordiziara manifestazioa, 'Orain da garaia, Goierri kalera, AHT Gelditu' goiburupean.

Zatoz Zientziaren
aurpegi alaienaren bila!

gizarte ekintza
hezkuntza

www.miramon.org
943 01 24 78
DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?


kutxa

SILVIA MIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07
TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

Pottoka
K A F E T E G I A

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitaratekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Ezkioko Arantzeaga baserriko sendia 1944. urte inguruan

Argazki honetan Etxezarreta Soraluze sendia ageri da, gurasoak eta 7 seme-alaba.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Txomin, Julian, Martin eta Migel Etxezarreta Soraluze.

Beheko ilaran: Jesus Etxezarreta Soraluze, Joxe Ramon Etxezarreta Berasategi (aita), Milagros Etxezarreta Soraluze, Agustina Soraluze Soraluze (ama, izatez Azkoitiko Martirieta auzoko Korta baserrikoa) eta Eduardo Etxezarreta Soraluze.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

biok kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7

A SE PLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

txekin
www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnacka 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O

NZ

nazaret zentroa

Aldakonea, 36 · Bº Egia
20012 DONOSTIA
Tel. 943 326666
Fax. 943 326384
nazaret@nazaretzentroa.com
www.nazaretzentroa.com

MATRIKULA IREKIA

BATXILERGOA

Ekainaren 29tik Uztailaren 3rarte

LANBIDE ZIKLOAK

AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik Uztailaren 12rarte

MATRIKULA

Ekainaren 29tik Uztailaren 3rarte

Batxilergoa

Zientziak eta Teknologia

Natura eta Osasun Zientziak

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

Administrazioa eta Finantzak

Informatika Sistemen Administrazioa

Nazioarteko Merkataritza

Idazkaritza

Ziklo Ertainak

Administrazio-Kudeaketa



kutxa | Lankidetzako Gizarte Ekintza



BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



urdaneta
oianguren



OIANGUREN BHI

ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA

Haurren mundura
gerturatzen

Altamira Auzoa z/g Tfnoa.: 943 880 862
Faxa: 943 164 121 www.oianguren.net

Etorkizunerako
prestakuntza
ezin hobea
jasotzen:

- Lan mundua:
Irakaskuntza
Hurtzaindegiak
Ludotekak...
- Unibertsitatea:
Hainbat lizentziatura
eta diplomaturako
sarbide zuzena.

HAUR HEZKUNTZA

(GOI MAILAKO
HEZIKETA ZIKLOA)

Jolasen
bidez
ikasten

Iraupena:
2000 ordu
(2 ikasturte)



AURREMATRIKULA EPEA: Ekainaren 1etik 12ra